



2010EKO URTARRILAREN 28KO
OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamarreko urtarrilaren hogeita zortzian, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Patxi Albisu Estensoro Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Xanet Barreras Jauregi, M^a Lourdes Garmendia Guerra, Xabier Arrasate Aierbe, Inazio Estensoro Eskisabel, Inazio Barandiaran Aldasoro, Ángel Hernández Marzal, Iñaki Saldaña Herrero eta Javier Moreno González de Lara.

Aktan adieraziko dira Felix Urkola Iriarte, Juan Manuel Serna Portugal eta Ricardo Crespo Rubio zinegotziak bertaratzen direneko unean.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTAK.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten dira 2009ko urriaren 29an, azaroaren 25ean eta abenduaren 17an egindako ohiko bilkure-tako eta azaroaren 12an egindako ez-ohiko bilkurako aktak, idatzita dauden moduan onartzen direlarik.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzako Ebazpe-nen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

III.- ENPLEGU ETA TOKI JASANGARRITASUNERAKO ESTATU FUNTSERA PROIEKTUA AURKEZTEA.-

Urriaren 26ko 13/2009 Errege Dekretu-legearen bitartez Enplegua eta Toki Jasan-garritasunerako Estatuaren Funtse sortu da. Fondo honek, Lazkaoko Udalak BEZ eta guzti gehienez ere 571.347 €ko zenbatekoa izango lukeen inbertsioa egitea ahalbidetzen du.

Hau honela, gaia aztertu ondoren, eta Hirigintza eta Obretako Batzordean informa-tua izan ondoren, gaur egungo kiroldegian arkitektura oztopoak kentzeko lanen proiektua Estatuaren Funtse honetara aurkeztea proposatzen da.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botue-kin, zera erabakitzen du:

1.- Urriaren 26ko 13/2009 Errege Dekretu-legearen bitartez sortutako Enplegua eta Toki Jasangarritasunerako Estatuaren Funtsearen kargura egiteko "Lazkaoko Joxemiel Barandia-



ran Udal Kiroldegian arkitektura oztopoak kentzea" inbertsio proiektua aurkeztea. Proiektu honen estimatutako baloraketa, B.E.Z. eta guzti, 570.795,40 € da.

2.- Alkatea ahalmentzea aurreko akordioa bideratzeko egin beharreko guztiak egin ditzan.

IV.- 1 H.J.A.KO -C.A.F.- PLAN BEREZIAREN BATEGINDAKO TESTUA.-

Udal honetako Osoko Bilkurak, 2009ko urriaren 29an egindako batzarraldian, 1 H.J.A.ko -C.A.F.- Plan Berezia behin betikoz onartzea erabaki zuen eta zati batean onartutako alegazioak eta dokumentuaren egile eta udal arkitekto aholkulariak direnak bere txostenean planteatzen zituzten erizpideak onartutako dokumentuarekin batera barneratuko zituen bategindako testua idaz zezaten agintzea erabaki zen baita ere.

Orain, teknikoei bategindako testu hau idatzi dutelarik eta Hirigintza, Obra eta Zerbitzuetako Batzorde Informatzailearen proposamenez Osoko Bilkura honetara ekartzen da bere onarpenerako.

Une honetan Juan Manuel Serna Portugal eta Ricardo Crespo Rubio zinegotziak bertaratu dira.

Gaia bozketan jarri eta Osoko Bilkurak, aldeko 9 botu (EAJ, Alternatiba, PP), aurka-ko boturik gabe eta hiru abstentzioz (PSE-EE) 1 H.J.A.ko -C.A.F.- Plan Bereziaren Bategindako Testua onartzea erabakitzen du.

V.- ESTALI GABEKO IGERILEKUKO LANEN 6. ETA 7. OBRA EGIAZTAGIRIAK.-

Joxemiel Barandiaran Udal Kiroldegiaren aldamenean eraikitzen ari diren Estali Gabeko Igerilekuak lanen obra zuzendaritza daramaten LKS Ingeniería, S. Coop.ko Javier de la Fuente Carazo arkitektoa eta Nerea Mujika Estensoro arkitekto teknikoei lanen 6. eta 7. obra-egiaztagiriak luzatu dituzte. Seigarren obra egiaztagiriaren zenbatekoa EHUN ETA HIRUROGEITA HEMEZORTZI MILA ETA BERROGEITA HIRU EURO eta BERROGEITA HIRU ZENTIMOTAKO (178.043,43 €) da eta 7. obra egiaztagiriarena berriz LAUROGEITA HEMEZORTZI MILA HIRUREHUN ETA HOGEITA BEDERATZI EURO eta HOGEITA HEMEZORTZI ZENTIMO. Lan hauek Altuna y Uria, S.A. enpresa ari da burutzen.

Udal teknikariak obra-egiaztagiri hauek aztertu eta bere oniritzia eman die.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, Estali Gabeko Igerilekuen eraikuntza lanen seigarren eta zazpigarren obra-egiaztagiriak onartzea erabakitzen du.

VI.- JABETZA KENTZE ESPEDIENTEAREN HASTE ONDORIOETARAKO BIDEGORRIAREN PROIEKTUA ONARTZEA.-

Injelan, S.L. ingenieritzak "Beasain-Ergoiena 3.7. ibilbidearen barruan Beasain-Lazkao bizikletari eta oinezkoentzako bide zatia egiteko proiektua" idatzi du Gipuzkoako Foru Aldundiaren aginduz, hau bizikleta eta oinezkoentzako bideak egiteko garatzen ari den programaren barruan.



Gipuzkoako Foru Aldundiak eta udal honek proiektu honen garapenerako izandako elkarrizketetan zera adostu dute, Gipuzkoako Foru Aldundiak proiektu hau bere kargura garatuko duela eta Lazkaoko Udalak proiektua egikaritzeko lurak eskuratuko dituela.

Hau honela izanik, proiektua aztertu ondoren, eta Hirigintza, Obra eta Zerbitzueta-ko Batzorde Informatzailearen proposamenez, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, bidegorri eta oinezkoentzako bide hau egikaritzeko lurak eskuratzeko jabetza kentze espedientea hasteko ondorioetarako proiektu hau onartzea erabakitzen du.

VII.- IBILGAILUEN ZERGAREN ORDENANTZA FISKALAREN ALDAKETA.-

Abenduaren 23ko 4/2009 Foru Arauak hainbat aldaketa sartu ditu zenbait zergetan eta hauen artean Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergan. Hemen arai garenean ajola digunerako, zergaren tarifak aldatu ditu guztiak gutxi gora behera %2 igoz.

Udal honek, 2010erako ordenantza fiskalen gaia aztertu zuenean, ibilgailuen zerga bere horretan utziko zuela erabaki zuen eta erabaki hori bete dadin zergaren tarifei aplikatzen zaien koefizienteak jeistea planteatzen da, Foru Arauak egindako igoera orekatzeko eta udal honek erabaki bezala zerga iazko zenbatekoetan gera dadin.

Hau honela, koefizienteen aldaketa hau planteatzen da:

Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga.-				
Ibilgailu mota		Oraingo Koefizientea		Aldatutako koefizientea
Turismoak		1,86		1,8238
Autobusak		1,78		1,7799
Kamioiak		1,78		1,7799
Traktoreak		1,78		1,7799
Erremolkeak		1,78		1,7799
Bestelako ibilgailuak		1,78		1,7799

Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, Ibilgailuen gaineko zergan tarifaren gain aplikatzen diren koefizienteen aldaketa hau onartzea erabakitzen du.

VIII.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du Haitin gertatu dena ikusita, Ifarra-Hegoa Lankidetzaren Programako 2009ko deialdian esleitu gabe gelditu zen dirulaguntza kopurua bertara bidaltzea planteatzen dutela.

Estensoren zinegotziak (EAJ) erantzuten dio esanez ideia ona izan baldin baliteke ere, hori batzordean aztertzea litzatekela egokiena.

Serna zinegotziak baita ere, San Prudentzioko bizilagunekin gaur arratsaldeko 6etan ea bilera bat egitekoa al zuen galdetzen dio alkateari, eta bilera horren gaiari buruz galdetzen du baita ere.

Alkateak erantzuten dio ezetz, berak ez duela bilerarik izan gaur 6etan, baina galdetzen duen gaiari buruz San Prudentzio Kalean etxebizitzaren etxe baten eraikuntzarekin zein arazo daudenaren berri ematen dio.

Alkatea argibide hauek ematen ari den bitartean, Xanet Barrerasek bilkura utzi egiten du eta ia une berean Felix Urkola zinegotzia bertaratzen da.

XI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak hogeita bost gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

